

## ANIZTASUNARI ESKAINITAKO ARRETA<sup>1</sup>

Estatuko Lege Organikoak (ELO; *Ley Orgánica del Estado, LOE*) 71. artikuluan adierazten du berariazko hezkuntza-premiak<sup>2</sup> dituzten ikasleek ohikoa ez den hezkuntza-arreta behar dutela, eta, hori justifikatzeko, arrazoi hauek ematen ditu:

- Ikasleek HPBak (Hezkuntza Premia Bereziak<sup>3</sup>) dituzte: adimen-urritasuna, sentsoriala edo fisikoa zein jokabide-nahaste larriak.
- Ikasteko berariazko zailtasunak dituzte: dislexia, disortografia, diskalkulia...
- Goi-mailako gaitasunak dituzte.
- Hezkuntza-sistemara berandu sartu dira (ikasle etorri berriak).
- Baldintza pertsonalak eta ibilbide akademikoa.

## INTEGRAZIOA<sup>4</sup>

1985. urte inguru arte HPBak zituzten ikasleak berariazko ikastetxeetan (adimen-urritasuna zeukaten ikasleentzat, ikasle gorrentzat, itsuentzat... berariaz sortutakoak) eskolatzen ziren. HPBen inguruan lege batzuk argitaratu ondoren, ikasle horiek ikastetxe arruntetan integratzen hasi ziren modu esperimentalean. Ondoren, LOGSE legeak<sup>5</sup> jaso egin zuen aipatutako ikasleek ikastetxe arruntetan integratzeko eskubidea zutela. Beraz, ikasle horiek eskolatzeko jarraitzen den irizpidea, oro har, honako hau da: ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta ikastetxe arruntetan eskolatu badaitezke, haietan eskolatuko dira, eta, ezaugarri horiek kontuan hartuta ikastetxe arruntetan eskolatzeko zailtasunak aurreikusten badira, berariazko ikastetxeetan.

Beraz, HPBak dituzten haurrak eskolatzeko hainbat bide daude:

- Eskola arruntetan. Talde arruntetan daude, baina batzuetan ikasleak gelatik atera daitezke, zenbait irakasgai beste gela batean emateko. Gelatik ateratzen direnean, Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleek eta hezkuntza-laguntzako espezialistek ematen diete arreta batik bat.
- Eskola arruntetan dauden berariazko geletan. GAUTENA elkarte<sup>6</sup> tarteko, badira horrelako gelak zenbait ikastetxetan: gela egonkorak. Gela horiei buruz honako hau dio GAUTENAK: “Ohiko ikasketa-plana egokitzea nahikoa ez duten ikasleek edo ikasketa-plan horren zati txiki bati jarraitu diezaioketenek parte hartzen dute gela egonkor hauetan, plan horren zati bati bakarrik jarraitzen diotenentzat jasotako heziketak funtzionaltasuna galtzen baitu heldu bihurtzen direnean”.

<sup>1</sup> Hezkuntza-laguntzako espezialista lana betetzeko jakin beharreko hezkuntza-antolamenduaren gutxienekoak.

<sup>2</sup> *Alumnos/as con necesidad específica de apoyo educativo*.

<sup>3</sup> Hezkuntza Behar (edo Beharrizan) Bereziako ikaslea (HBB) terminoa ere erabili ohi da.

<sup>4</sup> Egun inklusioaz hitz egiten da, eta ez integrazioaz. Bi kontzeptu desberdin dira. Aniztasun funtzionalaz ere hitz egiten da.

<sup>5</sup> LOGSE (1990): “*Ley Orgánica General del Sistema Educativo*”; Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea. ELOren (2006) aurreko hezkuntza-legea.

<sup>6</sup> Autismoaren Gipuzkoako Elkarte.



- Berriazko ikastetxeetan. Hezkuntza bereziko ikastetxeak dira: gorrentzat, itsuentzat... Gipuzkoan ASPACE elkarteetan badituzte Haur Hezkuntzako (HH) gelak. Nafarroan ere badira horrelako ikastetxeak (Isterria, Iruñan, besteak beste).
- Eskolatzeko partekatua. Ikasleak ordu batzuk berriazko ikastetxean ematen ditu eta beste batzuk ikastetxe arruntetan.

Printzipioz, hezkuntza-sistema ahaleginduko da HPBak dituzten ikasleek ahalik eta ordu gehien igaro ditzaten talde arruntetan, eta irteerak ere talde horietan egin ditzaten.

Horrez gain, EAEko (Euskal Autonomia Erkidegoa) Hezkuntza Sailak hitzarmenak sinatu zituen gurasoek sortutako elkarte batzuekin, eta, ondorioz, HPBetako ikasleek ez dute ordaindu behar edo gutxi ordaindu behar dute (gehienez ere, hileko kuota elkarte espezializatu horietako bazkide izateagatik) elkarte horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzen dituztenean (estimulazio goiztiarreko zerbitzua edo besteren bat –ASPACEn, ARANSGIn...–). Elkartetako batzuk honako hauek dira:

- GAUTENA. Autismoarekin lotua; gela egonkorak mantentzen dituzte eskola arruntetan.
- ASPACE. Garun-paralisiarekin lotua; HHko gelak dituzte, igerilekuak ere bai.
- ARANSGI. Gorreriarekin lotua; ikastetxeetako geletan egiten dute lan teknikariek.
- ONCE. Itsutasunarekin lotua; Hezkuntza Sailak hitzarmena dauka elkarte horrekin: ikusmen-urritasuna duten eskola arruntetako ikasleek laguntza jasotzen dute Hezkuntza Saileko Itsuen Baliabideetarako Zentrotik (materiala egokitzen zaie, transkribatzaileen laguntza jasotzen dute...).
- ATZEGI. Adimen-urritasunarekin lotua.
- ...

Gaixotasun arraroak dituztenek ere erabil ditzakete elkarte horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak.

Hezkuntza Sailak ez du hitzarmena sinatu elkarte guztiekin. Adibidez, ez du hitzarmenik DISLEBIekin (dislexiarekin... zerikusia duen elkarte), hitzarmenak sinatu ziren garaiaren ondoren sortu baitzen. Horrek dakar tratamenduaren ordainketa gurasoen gain geratzea.

Beraz, berriazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleak ikastetxe arruntetan integratuta daudenez, hezkuntza-sistemak hezkuntza-erantzun egokia eman behar die; horretarako, zenbait baliabide ditu:

- Baliabide espazialak (legeak markatzen du nola egokitu behar diren espazioak).
- Baliabide materialak (ordenagailu-programa bereziak, jostailu bereziak...).
- Giza baliabideak: PTko irakasleak (normalean, Irakasle Ikasketak Hezkuntza Berezia espezialitatean egin dituztenak), hezkuntza-laguntzako espezialistak (Zikloa, Gizarteratzea edo Haur Hezkuntza ikasi dutenak), Berritzeguneari atxikitako beste profesional batzuk (fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, logopedak...).
- Laguntza-zerbitzuak: Berritzeguneari eta IBT (Itsuen Baliabidetegiak).
- Curriculum-egokitzapenak.

Horrez gain, Hezkuntza Saileko profesionalak gizarte-zerbitzuetako profesionalekin (udaletakoak, aldundietakoak) koordinatzen dira zenbait kasutan; esaterako, haurrek tratatu txarrak

jasan dituzten zantzuak daudenean, zenbait ikasle eskolara joaten ez direnean... Kasu horietan Hezkuntza Saileko Ikuskaritzak ere parte hartzen du.

HHko eta Lehen Hezkuntzako (LH) ikastetxeetan aholkulariak daude (Irakasle Ikasketak egin dituztenak edo Psikologian, Pedagogian edo Psikopedagogian lizentziadunak); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Batxilergoan eta Lanbide Heziketan irakasle orientatzaileak ditugu (Psikologian, Pedagogian edo Psikopedagogian lizentziadunak).

Irakasle aholkulariek tutoreari laguntzen diote, aholkuak ematen dituzte, gelan esku hartzen dute, banakako esku-hartzeak egiten dituzte...

Irakasle orientatzaileek ikasleak pertsonalki eta akademikoki (etorkizun profesionalari begira) orientatzen dituzte, eta tutoretza-plana diseinatu eta aurrera eramaten dute tutoreen laguntzaz.

## **BERRITZEGUNEAK** (prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zentroak)

EAEko hiru probintziak eskualdetan banatuta daude, eta eskualde bakoitzean Berritzegune bat dago. Berritzeguneak eskualdeko ikastetxe publiko zein kontzertatuei ematen die zerbitzua. Gipuzkoan, Donostiakoa, Irungoa, Lasarte-Oriakoa, Ordiziakoa, Zarautzekoa eta Eibarkoa ditugu.

Berritzeguneak baliabidetegiak dira, eta dagokien eremuko ikastetxeei materiala mailegatzeko zerbitzua eskaintzen diete: liburuak, CDak, DVDak... Beti ere, hezkuntzarekin zerikusia duen materiala mailegatu da.

Berritzeguneen egiturari dagokionez, honako kargu hauekin osatzen da:

- Zuzendaria
- Aholkulariak
  - ❖ Etapako aholkulariak: HHkoa; LHkoa; Bigarren Hezkuntzako, esparru soziolinguistikoari dagokiona, eta Bigarren Hezkuntzako, esparru zientifiko-teknologikoari dagokiona.
  - ❖ Programa-aholkulariak: Hizkuntza Normalkuntzaz arduratzen dena eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiez (IKT) arduratzen dena.
  - ❖ HPBetako aholkulariak [Talde Multiprofesionala (TMP) osatzen dutenak]:
    - Espezialitateak: Garapenaren nahaste orokorrak, Gizarteratzea, Komunikazioaren ulergarritasuna, Garapenaren nahaste orokortuak eta Ikasketa-gaitasunen garapena.
    - Profesional horiek Psikologian, Pedagogian edo Psikopedagogian lizentziadunak dira, eta haien lanak bi dimentsio ditu: orokorra eta espezializatua (goian aipatutako lau gaiekin lotzen da).

- Langile ibiltariak (ikasleekin harreman zuzen-zuzena dute, baita ordutegi zehatz bat bete beharra ere):
  - ❖ Logopedak
  - ❖ Entzumena eta hizkuntzako irakasleak
  - ❖ Fisioterapeutak
  - ❖ Terapeuta okupazionalak
  - ❖ Ikusmen-urritasuna dutenen irakasleak
  - ❖ Hezkuntza-laguntzako espezialistak

Berritzegune horiez gain, lurralde historiko bakoitzean Berritzegune nagusi bat dago. Bilbon, Lasarte-Orian eta Gasteizen daude Berritzegune nagusiak, eta haietan, goian aipatutakoez gain, beste aholkulari hauek ere badaude:

- ❖ Arloko aholkulariak: Matematikakoa, Musikakoa, Gorputz Hezkuntzakoa, Orientabidekoa...
- ❖ Arduradunak: Kalitatekoa, Helduen hezkuntzakoa, Curriculum berriaz eta oinarrizko gaitasunez<sup>7</sup> arduratzen dena, Eskola inklusibokoa (aniztasuna eta generoa)...

TMPko aholkulari bakoitzari bere Berritzegunearen eremuko ikastetxe batzuk dagozkie, eta ikastetxe horietan lan egiten duten langile ibiltariekin koordinatu behar du; halaber, ikastetxe horietan eskolatuta dauden eta HPBak dituzten ikasleen jarraipena egin behar du.

## CURRICULUM-EGOKITZAPENAK

Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP) arloetako curriculumez (Matematikakoa, Gizartekoa...) osatzen da. Curriculum hitzez hitz “hezkuntza-helburu batzuk lortzeko asmoz, aurrez antolatutako hezkuntza-plan edo –programa” da. Irakasleak curriculum bere ikastaldera egokitu behar du eta, horretarako, curriculumean oinarrituz, programazioa idatzi behar du. Programazioak atal hauek izango ditu gutxienez:

- Helburuak: *zertarako* galderari erantzuten diote.
- Edukiak: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak, jarrerazkoak<sup>8</sup>; *zer* galderari erantzuten diote.
- Jarduerak: helburuak lortzeko egingo diren ekintzak.
- Metodologia: txokoak, eztabaidak, talde handian eta talde txikian...; *nola* galderari erantzuten dio.
- Baliabideak: denborazkoak, espazialak, materialak, teknologikoak eta giza baliabideak; *zerekin* eta *nola* galderari erantzuten diete.
- Ebaluazioa
  - ❖ *Zer* ebaluatuko da? Ikaslearen ikaskuntza, irakaslearen jarduna, programazioa...

<sup>7</sup> Berez, *konpetentziak* beharko luke izan.

<sup>8</sup> ELOren arabera, kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak, hirurak, konpetentzien barruan kokatzen dira.

- ❖ *Nola* ebaluatuko da?
  - Ebaluatzeko teknikak (behaketa...) eta tresnak (gelako egunerokoa, pasadizoen bilduma, autoebaluazio-galdetegia, azterketak...).
  - Helburuak lortu diren jakiteko ebaluazio-irizpideak kontuan hartuko ditugu.
- ❖ *Noiz* ebaluatuko da? Hasieran, bitartean, bukaeran.
- ❖ *Nola* emango dira *emaitzak*? Hiruhilekoaren amaieran gurasoei ematen zaien txostenaren bidez...

HPBak behin-behinekoak izan daitezke (adibidez, ikasle bat gurpil-aulkian edo makuluekin dabil auto-istripua izan duelako, baina aurreikusten da handik gutxira bere kabuz ibiltzeko gai izango dela) ala behin betikoak izan daitezke (ikasle gorrak, adimen-urritasuna dutenak, garun-paralisia dutenak...).

Ikasleak dituen beharrak eta zailtasunak kontuan harturik, irakasleak curriculumaren elementuren bat edo gehiago egokituko ditu haren beharretara. Egokitzapenak honelakoak izan daitezke:

- Sarrerako curriculum-egokitzapenak
  - ❖ Baliabideak aldatzen dira, ikasleak ohiko curriculumera sarrera izan dezan. Orduan, material bereziak erabiltzen dira (jostailu egokituak –txintzarria duen baloia...–), laguntza teknikoak (ordenagailurako lupak, programa bereziak –ikasleak idatz dezan...).
  - ❖ IBTetako profesionalek materiala egokitzen dute ikusmen-urritasuna duten ikasleentzat: idatzizko materiala grabatzen dute haientzat, ONCEk egokitutako filmak eskuratzen dizkiete...
- Bestelako curriculum-egokitzapenak: baliabideak ez diren curriculumaren elementuen egokitzapenak dira, HPBak dituzten ikasleentzat egindakoak; bi motatakoak izan daitezke:
  - ❖ Esanguratsuak: edukiak, helburuak edo ebaluazio-irizpideak aldatzen edo kentzen direnean eta haien ordez beste batzuk idazten direnean egiten dira.
  - ❖ Esanguratsuak ez direnak: jarduerak, metodologia, espazioa, denbora edo taldekatzeak aldatzean egiten dira.

Curriculum-egokitzapenak egiteko Curriculum Normen Berriraketa Dokumentua (CNE) bete behar da eta Berritzeguneeen bidez izapidetu (tramitatu). Berritzeguneko TMPko HPBetako aholkulariak ikaslearen jarraipena egingo du hiru hilean behin, eta, horretarako, beste profesional batzuekin koordinatuko da.

## ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO GELAK (ZIG)

DBH amaitzen dutenean, adimen-urritasuna duten ikasleek gutxienez 16 urte izango dituzte eta ikastetxe batzuetan dauden ZIGetara joan ahal izango dira. Eskualdeka banatzen dira ZIGak. Adibidez, Donostiako Antigua-Luberri BHI institutuan badago bat.

Bertan ziklo hauek ematen dira:

- Oinarrizko Ikaskuntzen zikloa (16-18 urte); honako arlo hauek lantzen dira:
  - ❖ Komunikazioa
  - ❖ Autonomia pertsonala
  - ❖ Gizarte-trebetasunak eta gizarteratzea
  - ❖ Lanerako orientabidea
- Berriazko Ikaskuntzen zikloa (18-20 urte); arloak hauek dira:
  - ❖ Oinarrizko prestakuntza
  - ❖ Lanerako orientabidea eta tutoretza-orientabidea (ondoren, oro har, GUREAKen sartzen dira Gipuzkoan, eta Lantegi Batuak-en Bizkaian...).
  - ❖ Lanbide-izaerako berriazko ikaskuntzak
  - ❖ Jarduera osagarriak

ZIGetan PTko irakasleek, LHko irakasleek eta beste profesional batzuek lan egiten dute. Ikasleen beharrei erantzuteko egokia ikusten denean, Hezkuntza-laguntzako espezialistek ere lan egiten dute gela horietan, ikasleei laguntza emanez (beren ordutegien atal bat eskaintzen diote zeregin horri).

### JARDUERAK

#### LEHENENGOA:

Irakurri artikulua (ZENBAITEN ARTEAN: “Zein da terapeuta okupazional baten egitekoa hezkuntzan? Zertan laguntzen die ikasleei?”, *in* Hik Hasi aldizkaria, 145 (2010), 30-32.) eta erantzun galdera honi: zer desberdintasun dago fisioterapeuten eta terapeuta okupazionalen artean?

#### BIGARRENA:

Irakurri “Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsorzioa” artikulua eta egin eskema.

#### HIRUGARRENA:

Aztertu Donostiako Itsuen Baliabidetegiko webgunea ([www.ibtcridonostia.eus](http://www.ibtcridonostia.eus)), bertan zer lan egiten duten jakiteko.



## BERARIAZKO HEZKUNTZA-PREMIAK

ESPAINIAKO ESTATUKO BURUZAGITZA: *Estatuko Lege Organikoa (ELO), 2/2006, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa*, Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO), 106. zk., 2006-05-04.

### OHARRAK

- ❖ EAeko HPBetako legedia –beherago zerrendatua– ELOra egokitu behar da, zaharkitua gelditu baita. Horretarako, Hezkuntza Sailak “Aniztasunari Arreta eskaintzeko Plana” abian jarriko du; baina martxan jarri aurretik, sektoreko elkarte eta hezkuntza-eragileei eman zien plan hori, 2011ko azaroan, iritzia emateko eta ekarpenak egiteko. Ondoren, legedia ELOra egokituko du.
- ❖ EAOn, 2011ko azaroaren 9an argitaratu zen Hezkuntza Berezia eta Entzumena eta Hizkuntza espezialitateetako maisu-maistrek izango dutela Bigarren Hezkuntzan lan egiteko aukera, aniztasunari arreta eskaintzeko funtzioak betetzeko. Ikusi beharko da horren inguruan zer argitaratzen den Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA).
- ❖ Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) (2011) Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS; *Clasificación Internacional de Enfermedades, CIE*) berrikuntza hau txertatu du: *adimengarapenaren nahastea* terminoa proposatzen du *adimen-urritasunaren* ordez.

## HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK

EUSKO JAURLARITZA: *118/1998 DEKRETUA*, ekainaren 23koa, *hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena*, EHAA, 1998-07-13.

EUSKO JAURLARITZA: *AGINDUA*, 1998ko uztailaren 24koa, *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena*, *hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura*, EHAA, 1998-08-31.

EUSKO JAURLARITZA: *ERABAKIA*, 1998ko uztailaren 24koa, *Hezkuntza Sailburuordetzarena*, *aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena*, EHAA, 1998-08-31.

EUSKO JAURLARITZA: *AGINDUA*, 1998ko uztailaren 30ekoa, *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena*, *hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena*, *gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat*, EHAA, 1998-08-31.

EUSKO JAURLARITZA: *AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko, EHAA, 1998-08-31.*

EUSKO JAURLARITZA: *AGINDUA, 1998ko abenduaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 1998ko uztailaren 24ko Agindua aldatzen duena; agindu horrek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen ditu: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura, EHAA, 1999-01-19.*

## **BERRITZEGUNEAK**

EUSKO JAURLARITZA: *40/2009 DEKRETUA, otsailaren 17koa, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzekoa, EHAA, 2009-02-26.*

EUSKO JAURLARITZA: *41/2009 DEKRETUA, otsailaren 17koa, Berritzeguneetako lanpostuen zerrenda onartzen duena, EHAA, 2009-02-26.*

## **ITSUEN BALIABIDEETARAKO ZENTROAK**

EUSKO JAURLARITZA: *40/2005 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiak sortzen dituena, EHAA, 2005-03-10.*

## **ETXEKO IRAKASKUNTZA ETA OSPITALEKO IKASGELAK**

EUSKO JAURLARITZA: *AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko (V. Atalburua), EHAA, 1998-08-31.*

## **OHARRA**

Baliteke legedian aldaketak izatea. Berritzeguneetakoek izango dute horren berri, baita ikastetxeetako orientatzaileek eta PTko irakasleek ere.



## WEB-ORRI INTERESGARRI BATZUK

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILA: *Hezkuntza Berriztatzea. Dokumentuak eta argitalpenak* [linean]. Eusko Jaurlaritzaren webgunea [kontsulta-data: 2020-05-04]. Erabilgarri, hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-berriztatzea/>

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILA: *Hezkuntza Berriztatzea. Laguntza Zerbitzuak* [linean]. Eusko Jaurlaritzaren webgunea [kontsulta-data: 2020-05-04]. Erabilgarri, hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-berriztatzea/>

DONOSTIAKO BERRITZEGUNEKO HPB TALDEA: *HPB Donostia* [linean]. Donostiako Berritzeguneko HPB taldearen webgunea [kontsulta-data:2020-05-04]. Erabilgarri, hemen: <https://sites.google.com/view/hpbdonostia/hasiera>